




ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Gartziategi.

Auzoa, udalerria: Martutene (Altza)., Donostia.

Dolarearen kokapena: Baserriaren barnean, lehen solairuan.

Jabea: Bittor Lizeaga.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendearen erdialdekoa.

Iraunaldia: Duela 9 urte arte lanean izan zuten.

Zenbait datu: Tolare hidrauliko batekin batera, duela 9 urte arte egon da lanean. Neumatikoarekin hasi zirenean utzi zioten erabiltzeari. Baserrian obrak egin zituztenean, behe solairuan hormigoizko pilareak jartzearekin batera hormigoizko aska eraiki eta zurezko zaharra ordezkatu zuten.

Eguno erabilera: Bere horretan dago.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askan zutitutako burdinazko bi ardatz hariztatu ditu. Motore batek mugitzen du uhal polea eta engranajez osatutako makineria guztia, eta ondorioz ardatzean gora eta behera egiten du altzairuzko perfil eta oholez osatutako plataformak, bi abiaduratan: azkar edo motel, gerturatu edo zanpatu nahi denaren arabera, hurrenez hurren. Motore berak, gainera, matxaka mugitzen du. 12 tonako hormigoizko aska du. Behe solairuan dago sagardotegiko upelategia.

Dolarearen osagarriak:

- Matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin. Honela ipintzen du fundizioko armazoiari: "A. Echeberria y C^a. Lasarte, 1885"
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Patsa maneiatzeko tresneria.

Argazkiak: 37.01, 37.02, 37.03, 37.04.

GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia.

OHARRAK

- Baserria bi sagardotegien artean (Gartziategi eta Lizeaga) fisikoki banatu behar dutenez, matxaka aldeztu behar dute. Aska, aldiz, osorik mantenduko dute, nahiz eta banaketak erdiz erdi harrapatu.
- ETBko Sustraiak programarako sagardoa nola egiten zuten grabatu zen.
- Sagardoa egiteko tolare neumatiko modernoa dute.

GALDETEGIA

Informatzailea: Bittor Lizeaga.

Datu bilketaren egilea: A. Agirresarobe, J. Tellabi

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 18a